

# ESTATU MODERNOAREN SORRERA: THOMAS HOBBS (1588-1679)

**Jokin Kabeilo Ibañez**

**Filosofian Lizentziatua**

Orrialde hauetan azalduko dizuedan gaia filosofia doktoregoan eginiko ikerketa lanaren sintesia (Jabetza Hobbesengan) eta nire tesia izango denaren irazkina edo aurrerapena duzue, 1991eko uztailaren 17an UEUn eman nuen hitzaldia, hain zuzen ere.

Estatu Modernoaren sorreraz arituko natzaizue, baina ez Estatuaren genealogia bat burutzekotan, Thomas Hobbesen teoria politikoak Estatu Modernoaren sorrera eta eraikuntzan izan zuen funtsezko garrantzia azpimarratzeko baizik.

---

## Abagadune historikoa

---

Thomas Hobbesen teoria politikoa hobeto uler dezagun, komenigarria deritzot sarrera historiko labur bat egiteari, alde batetik bere garaian zegoen ezegonkortasun politikoak haren teoria politikoan erabateko eragina izan zuelakoan bait nago, eta beste aldetik, garai hartan Estatu Modernoaren sorreran garrantzi handia izango zuten gertaera asko eman bait ziren.

Europa osoa etengabeko gerran zegoen murgildurik XVII. mendean; Hogeitamar Urteko Gerra (1618-1648), Ingalaterrako Gerra Zibilak (1642;1648), Frantzia eta Espainiaren arteko Gerra (1635-1659), Ingalaterra eta Herbehereen arteko Guerra (1652), Austria eta Turkiaren arteko Gerra (1664), eta abar luze bat.<sup>1</sup>

Gizartea aldatzen ari zelako seinaleak nabariak ziren, botere politikoa inoiz baino eztabaidatuagoa zen. Izan ere, Elizak mendeetan zehar izandako botere politikoa gero eta ahulagoa zen, Luteroren Erreformak eragin handia izan zuen, hala merkantilismoak nola Erdi Aroaren bukaeran feudalismoaren beraren bukaera ekarri zuen hiribilduen finkapenak ere. Gertaera guzti hauek aintzat harturik XV. eta XVI. mendeetako Ernazimentuak eskakizun berriak sorterazi zituen gizakiarengan; gizakia modernitatearen atarian zegoen.

Baina, XVII. mendean murgildu aurretik, atzera jo dezagun ildo

historikoari ongi heltzeko, gain-begirada batez bakarrik bada ere. Aurreko bi edo hobe esanda hiru mendeetan, XIV.etik hasita, botere feudala deuseztuz zihoan heinean monarkiena sendotuz eta zabalduz zihoan, monarkiek beren esparru politikoa berenganatzeko hiribildu gutunak (erdaraz "carta puebla" deituak) eman eta honela hauek haren babes eta subiranotasunpean geratzen ziren. Izan ere, nekazariak eta herritar xehe haiek jasaten zituzten gehiegizko zerga, bide-sari eta botere feudala bidegabekeriak har genitzake herritarren desadostasunaren zergatizat. Gogora dezagun, esaterako, Gipuzkoan banderizoen borrokak ematen zireneko garaian, Nafarroako Erresumak eta, batez ere, Gaztelak hiribilduak sortu eta Erret bideak eraikitzeari ekin ziotela, poliki-poliki Gipuzkoako lurraldea Gaztelako Koroaren menean geratu zelarik. Beraz, botereari eusteko norgehiagoka honetan banderizoak galtzaile atera ziren bitartean, monarkia hiribilduak sortu eta bereganatzean garaile atera zen.

Azpimarratzekoa da, halaber, komunikabideen hobekuntzak izan zuen garrantzia, monarkiaren finkapenean eta Estatu Modernoaren eraikuntza eta garapenean funtsezko puntua izan bait zen.<sup>2</sup> Erdi Aro osoan egin ziren bide-sareen konponketa eta hobekuntzak urriak izan ziren (Europa osoan zegoen bide-sarea erromatarren garaian zegoenarekin konparatuz ia ez zen handitu, ezta hobetu ere) eta honi gehitzen badizkiogu jauntxoei ordaindu behar zitzaizkien bide eta zubi-sariak, hala nola bizi zen segurtasunik eza, erasoak eta

lapurretak zirela eta, erraz uler daiteke nekazari eta artzainak monarkiaren alde jartzea; azken finean, monarka bakarrari zergak ordaintzea hainbat eta hainbat jauntxori tokian tokiko bide-saria ordaintzea baino errentagarriagoa zen. Bestalde, Koroak bere hiribilduetara migraturiko nekazariei babes handiagoa ematen zien eta Erret bideen eraikuntzarekin hiribildu horien merkataritza seguru eta aberatsago bihurtu zen.

Orduan, garai hartako zerga eta bide-sari anizkun haien zentralizazioak fiskoaren<sup>3</sup> sorrera ekarriko zuen aurrerantzean, eta fisko horrek, hain zuzen ere, Estatu Modernoaren odola iratzarri eta bizkortuko zuen, eta horretaz ongi jabetu zen Hobbes:

"Los conductos y los caminos por los que el dinero llega a ser de uso público son de dos clases: una, la que lo lleva a las arcas públicas; la otra, la que lo saca otra vez de éstas para realizar pagos públicos. A la primera clase pertenecen los recaudadores, cobradores y tesoreros; a la segunda, nuevamente los tesoreros, y los funcionarios que han sido designados para pagar los varios ministros públicos o privados. También en esto el hombre artificial presenta una semejanza con el hombre natural, cuyas venas, recibiendo la sangre de las diversas partes del cuerpo, la llevan al corazón, donde, una vez hecha vital, el corazón vuelve de nuevo a enviarla por las arterias para vivificar y dar movimiento a todos los miembros".<sup>4</sup>

Baina, Estatu Modernoa, gorputz artifizial hori, ordura arte beste oztopo

handi eta boteretsuago baten aurrean zegoen: Eliza. Hasiara batean Eliza ez bazen oztopo izan monarkien eraikuntzan, erregeen boterea Jainkoarengandik bait zetorren, eta ondorioz, Elizak, zeinaren boterea kinka larrian bait zegoen, monarkien aldeko jarrera aurkeztu zuen. Dena dela, Estatu Modernoaren sorrerako, eta bere guztizko subiranotasuna lortzeko botere erlijioso horrek haren menpe izan behar zuen. Hurrengo urrats hori, gehienbat, Erreformen eman zen, eta pentsamenduaren arloan Eliza eta Eskolastikaren porrota lehenago emana izan arren, Estatu Modernoaren sorrera eman zedin erabateko hausketa behar zen, zisma bat, alegia.

Erreforma garaian Estatu Modernoaren oinarriak finkatzen hasi ziren. Kalvino eta Luteroren erreformek eta Ernazimentuan gauzaturiko mundu, unibertso eta gizakiaren ikuspegi berriek emango zioten azken eraso gogorra Elizari, Europa osoa erlijio-gerran murgildu zelarik: ez jainko ez errege, artaldea zeharo matxinatua, aginte eza nonnahi:

"Además de la influencia específica de las guerras religiosas francesas y de la rebelión de los Países Bajos, convendría señalar el efecto más general de la teoría calvinista. En el pensamiento político protestante había una contradicción no resuelta. La lógica última del sacerdocio de todos los creyentes de Lutero aplicado a la política era una anarquía individualista".<sup>5</sup>

Guzti honek Ingalaterran ere eragin zuzena izango zuen. Ikus dezagun,

bada, zehatz-mehatz, Ingalaterrako egoera soziopolitikoak, Thomas Hobbesek bertatik edan bait zuen bere teoria politikoa burutzeko. XVI. mendean herrialde ingelesen erlijio-matxinadak gertatu ziren (1536, 1549, 1554 eta 1569). Hala ere, matxinada horien jatorria erlijioa bera bakarrik zela esatea, azalpen errazegia litzateke<sup>6</sup>, familia aristokratikoen indarra eta eragina ere aintzat hartzekoak ziren. Honela, XVI. mendean Tudor dinastiak eraturiko sistema politikoa Monarkia eta estamentu aristokratikoaren arteko sinbiosian oinarritua zegoen.<sup>7</sup>

Arestian esan dugunez, Ingalaterrako gizartean eta ondorioz monarkiaren sistema politikoan aldaketa nabarmenak izan ziren XVI eta XVII. mendeetan. Baina, nekazaritzan, batez ere, aldaketa sakon bat gertatu zen ekoizpenaren gehikuntza eta zabalkuntza sortuz. Lurjabeek beren soroak hesi zituzten, Ingalaterra zaharraren lur komunalen sistemarekin (openfields) hautsi zelarik. Honela, lur horiek pribatizatzean (enclosures) sistema ekonomikoa aldatuz joan zen; lur gabeko nekazariak hirietarantz migratzen hasi ziren, batipat Londresearantz, lan berrien bila. Bitartean, lurjabe horiek (land-lords) eskari berrietara egokiturik, ekoizpen handiagora eta ardien hazkuntzara jo zuten, alde batetik manufakturen industrietarako artile gehiago sortzeko, eta bestalde hirietako biztanlego hazkorraren okel-eskaria asetzeko.

Kapitalak pilatuz joan ziren eta honela Bankak sortuko ziren –gogora

dezagun Amsterdamgo Banka, lehendabizikoa, 1609an sortu zela–, industriak ere susperraldi izugarria izan zuen manufaktura zirela bide, eta Amerika aurkitu berria zenez merkataritzaren gorakada nabarmena bezain azkarra izan zen, prozesu ekonomikoa honetan pisu handia izan zuelarik.

Bestalde, Tudorren ostean Estuardoen politika krisaldian amilduko zen, erregea eta Parlamentuaren arteko gatazka berehala piztu zelarik. Nobleziak eta "gentry"-k botere politiko handia zuten Lord eta Komunaren ganbaran, eta dinastia berriko erregeek, jatorriz eskoziarrak zirenek (Jakobo I eta Karlos I), monarkia absolutistaren aldeko jarrera azaldu zuten, egoera soziopolitikoak kinka larriak zegoen.

Jakobo I. arekin gauzak okerragora ez baziren joan egoera ekonomikoari esker izan zen. Karlos I. arekin, ordea, zerga berriak aduanetan ezezik estatu osoan ere ezarri ziren –garai hartan Ingalaterrako herrialde desberdinek autonomoak ez izan arren, eskualde bakoitzeko nobleziak eraturiko instituzio eta antolamendua zeukaten–, eta gainera, eskoziarrei erlijio anglikanoa derrigortu nahi izan zuten, ondorioz gerra zibila hasi zelarik. Hala ere, honako eritzi hau erantsi beharra dago:

"La revendication égalitaire fut étendu de la religion à la politique dans le cours de ce que nous pouvons appeler la révolution anglaise (1640-60). Tout particulièrement par ceux qu'on a appelés les Levellers

("niveleurs"). Il furent rapidement défaits, mais ils avaient eu le temps de tirer pleinement les conséquences politiques de la idée de l'égalité chrétiens".<sup>8</sup>

Edinburgoko matxinadari aurre egiteko Karlos I.a erregeak laguntza eskatu behar izan zion Parlamentuari, baina Parlamentua zegoeneko haren aurka zegoen, eta Tudorren garaitik suspertu ziren boterearen inguruko eztabaida eta eskakizunek gerra zibila ekarri zuten. Karlos I.a hil zuten eta erregimen politiko berria ezarri zen, *Commonwealth* izenekoa (1648-59), monarkia, apezpiku eta *cavaliers*-ei (erregearen aldekoak) lurra konfiskatu zitzaizkielarik. Horrela, noblezia txikiak, Parlamentuko ejerzitoaren ofizial eta soldaduek, merkatariek, industrariak, eta lege-gizonek eta medikuek, hots, goi-burgeseria eta aristokrazia txikiak, osatzen zuten *gentry*-ak probetxamendu handia atera zion.

Geroago, Errestaurazio Monarkikoarekin (1660) aipatu *gentry*-k bere boterea eta eragina handitu zituen, eta Karlos II.aren monarkiarekin adostasun batera iritsi zen. Baina, Jakobo II.a katolikoa zenez, ez zuen zorte berbera izan eta 1688an *Iraultza Loriotsuaren* bidez erregimen berri bat erditu zen: Parlamentuak kontrolaturiko monarkia. *Eskubideen Aitorpena* delakoarekin erregimen parlamentarioaren aurrerapena nabarmentzen izan zen, Estatu Modernoaren jaiotza antzeman zitekeelarik.

Hurrengo hamarkadetan (1670-1700) Ingalaterrako politika finkatuz joan zen, eta bi joera politiko nagusi agertu ziren: *tories* erregearen zenbait botere onartzen zutenak, eta *whigs*, Parlamentuaren boterearen aldekoak.

Bestalde, eta sarrera historiko honekin amaitzeko, aipatu beharra dago Ingalaterraren zeregin internazionala. Beste Estatuaren aurka egindako gerretan ezer onik atera ez bazuen ere, nazioarteko pakearen alde azaldu zen, batez ere, bere merkataritza hazkorrari komeni zitzaiolako. Honela, Cromwellen garaian azaltzen hasia zen inperialismo ingelesak, *Nabigazio-Aktak* atera zituen, hain zuzen, merkantilismoaren berme zuzena zirenak. Izan ere, garbiri ikus dezakegu Estatu Modernoak inperialismoarekin lotura estu-estuak zituela; eta horregatik itsas potentzia izan nahi zuen eta horretarako nederlandarren aurkako gerrak egingo zituen, beste potentzia handiekin bake-itunak sinatzen zituen bitartean, bere bideak irekiak izateko. Beraz, Ingalaterrak garai honetan bere etorkizuna eraiki zuen merkantilismoaren aurrerapen ekonomikoan oinarriturik. Gero Utrecht eta Rastadteko itunek (1713-14) Ingalaterrako egoera politikoaren egonkortasuna sendotu zuten, industri iraultzari bide hobezina aurkezten zitzaiolarik.

Laburtuz, Estatu Modernoaren eraikuntzarako beharrezkoak ziren pentsamoldeak eta abagadune sozio-politikoak garai honetan eman zirela esan genezake. Botere politikoa

erlijioaren uztarpetik askatu zen, eta Ingalaterrako Parlamentuan klase politiko bat sortu zen Erregearen subiranotasun ahalguztidunari aurre egiteko, Erreformaren bidez aginte eta betebeharrak politikoen razionalizazioa burutu zelarik. Gizartean, bestalde, merkantilismoren hazkundeak zela eta, aldaketa nabarmenak gertatu ziren, feudalismo zaharkituarekin hautsi ondoren antolamendu berri bati bideak ireki zitzaizkiolarik. Hala ere, Europan iraultza eta borroka horien ondorioz politika-eredu zabalagoak sortu baziren, Boterearen sistematizazio hori eman bazen, botere eta agintearen inguruko eztabaida benetan sakona eta emankorra sortu zelako izan zen. Ikus dezagun, bada, Pentsamenduaren arloan Thomas Hobbesek izan zuen garrantzia zertan zetzan.

---

**Atropologia berria: gizaki eta gizartearen ikuspegi mekaniko-materialista.**

---

Thomas Hobbes bizi izan zen mendean giza eredu zaharrarekin apurtu zen, alde batetik zientziak aurrerapausu ederrak eman zituelako (Koperniko, Galileo, Kepler, Harvey, Descartes, Pascal, besteak beste), eta bestalde ekonomi aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboak gertatu zirelako, eta azkenik pentsamenduaren arloan Eskolastikaren menpekotasunarekin hautsi zelako. Erdi Aroko gizakia jadanik hila zegoen, menderik mende Elizaren izpiritualtasunak gatibu izan zuen gizakiak mundu errealean lege fisikoak ezagutzeko zihoan heinean libreago sentitzen zen, eta ondorioz bizitza honetan eta ez agindutako beste

bizitza hartan bizitzeari ekin zion. Beraz, bere kulturaren eta gizartearen ikusten zituen akatsak eta bidegabekeriak ezin zituztela onartu, lehendabizi Elizaren botereari aurre egin zitzaion bezala, filosofia arloan Eskolastikaren metafisikari eraso ederra jaurtiki zioten (eraso honen aitzindaria Ockham-en sega izango genuke). Hein berean, Hobbesek bere zientzia politikoaren eratzeko ahaleginak gizakiaren eta beronen jarrera ezberdinen kritika burutu zuen. Hobbesek politika eta erlijioa banandu zituen, zegozkien lekuetan ezarri zituelarik. Baina, haren teoria aintzat hartu zuten beste pentsalariak ez zituzten ahalegin horiek behar bezala baloratu:

"Les philosophes qui, au XVIII<sup>e</sup> siècle, tels Harrington, Diderot ou d'Holbach, ont voué une admiration quasi inconditionnelle à l'anthropologie élaborée par Hobbes ont négligé le contexte mécaniciste dans lequel se développe son étude de l'Humaine nature. Pourtant, l'option délibérément mécaniciste du philosophe de Malmesbury est essentielle. En le situant épistémologiquement aux cotés de Marsenne, de Gassendi, de Harvey, elle témoigne d'une double rupture: d'une part avec la conception métaphysique -philosophie vaine et fabuleuse- de l'être humaine, d'autre part -et ceci sera une conséquence de cela- avec l'idée d'une politique qui, asservie à la théologie,..."<sup>9</sup>

Hobbesen ikuspegi mekaniko-materialistak mugimenduen legeen bidez azaltzen diren gizakiaren gizarte

geometriko bat aurkeztu nahi zigun. Zuzenbidearen gauzatze razionalak gizakiaren jarrera eta ekintza politikoaren azterketa objektiboa lortu nahi zuen bere idazlanetan. Honela, gizakia mundu honetan inoiz baino finkatuagoa agertzen zen azterketa enpirista eta razionalista baten bidez. Izan ere, mundua ulertzeko balio izan zizkien legeak berari atxekituko zitzaizkion bere jarrera zientifikoki aztertzearen:

"Así nació la gran creación de la antropología de esta época: el establecimiento de las leyes que dominan la conexión causal de la vida anímica de tal modo que cada uno de los estados anímicos puede derivarse del principio supremo de la propia conservación de un ser psicofísico condicionado por el mundo exterior y que reacciona sobre él. Hobbes y Spinoza son, a base de Descartes, los representantes clásicos de esta antropología".<sup>10</sup>

Gizakia ongi behatuz gero beste gizakiekin bizitzeko erregelak pragmatikoki ezar genitzake, zeren eta Hobbesek ematen zizkigun lege natural horien bidez garai hartan hain konfliktiboa zen gizartea hobetzeko bidea eskaintzen zitzaigun. Beraz, haren antropologiak lehendabizi zer nolako elementu beharko ziren gizadiaren egoera natural bat izateko azaldu zigun, hipotesi honen ondorioz espeziaren berezko mekanismoen eragin posibleak ematen zizkigun mugimenduaren erregela mekanikoen arabera. Balizko egoera honetan giza harremanak ezinezkoak izango

liratekeenez, Estatua sortu beharra zegoela baieztatu zuen, bestela, gizakiak egoera natural horretan bertan behera utzia, inolako kontrolik gabe, besteen aurka borrokatzen hasiko bait litzateke, gizon orok bere zoriontasuna, bere ongizatea, alegia, bilatzen bait du: bonun sibi.

Askotan, Makiavelo eta Hobbes hipokresi paregabeaz kondenatu izan dira; dena dela, Joxe Azurmendik dioskunez:

"Baina, haiek ez zuten moralik irakasten, Gizonak zer egiten duen, esaten zuten. Zekusatena esanez, gizona otso bat dela esaten zuten. Atrebentzia horrengatik biak inmoralista bezala pasatu dira historiara".<sup>11</sup>

Beraz, gizakia animalia bekaizti legez aurkeztu digu Hobbesek. Funtsean gizaki orok bere bizitzari iraupena ematen ahalegintzen da, lege naturalzat bait du. Jadanik ez zaigu azaltzen aintzinako gizaki on hura, beste gizakiekin harremanetan sartzea gustokoa zuena:

"... l'ouvre de Hobbes est significative dans l'histoire de la pensée politique. D'un coté il y a rupture totale avec la religion et la philosophie traditionnelle (L'homme n'est pas un animale sociopolitique), et par là la spéculation sur l'état de nature et le Droit naturel est élevée à l'absolu et à une intensité sans précédent, tandis que la perspective machiavélienne est enrichie et systematisée. De l'autre coté, il y a le profond paradoxe d'une vie mécniste de l'animal humaine



conduisant à la forte démonstration de la nécessité de la souveraineté et de la sujétion..."<sup>12</sup>

Antropologia berri honekin gizakia, natura eta Estatu edota gizarte araupetu baten artean kokatzen da, eta hortik ez da aurrerantzean aterako, naturatik gero eta urrutiago eta Estatu horren menpean gero eta lotuago sentituko delarik, Leviathan, itsas mamutzar beldurgarri hori, artifizio erraldoi eta sofistikatu bihurtuko bait da.

Hobbesek azaltzen digun ikuspegi horren bidez irteerarik gabeko bidea aurkezten digu: zibilizazioan bizi edo bestela elkarren arteko gerran murgildu. Haren teoria politikoarekin, gizarte modernoaren oinarriak ezartzen dira eta gizakia bere errealtate sozialaren aurrean kokatzen da, nolabait, berak bere onerako erabaki bait du menpekotasun horretan bizitzea. Dirudienez, La Boétiek bere *Discours sur la servitude volontaire* delakoarekin ikuspegi bat ematen zigun, baina eritzi eta hipotesi desberdinekin, haren ustez gizartea egoera naturalean gizakiarekin bat zetorrelako, gizartearen zatiketa ez da gizartearen egitura ontologiko bat, alegia; *Estatu bera da gizartearen zatiketa eta gizakiaren menpekotasunaren sortzailea* diosku Pierres Clastresek La Boétieri buruzko artikuluari.<sup>13</sup>

Dena dela, gizakia, Hobbesek dioenez, menpeko bihurtzen da bildur delako, bere bizitza eta lorturiko ondasun guztiak galtzeko bildur bait da, eta bakea izateko gizarte

kontraktual horretan sartu behar du, bere natura arrazoidunak berak eskatzen dio eta.

"las pasiones que inclinan a los hombres a buscar la paz son el miedo a la muerte, el deseo de obtener las cosas necesarias para vivir cómodamente, y la esperanza de que, con su trabajo, puedan conseguirlas. Y la razón sugiere convenientes normas de paz, basándose en las cuales los hombres pueden llegar a un acuerdo".<sup>14</sup>

Hobbesek giza natura ebakiko du taxidermista bat bailitzan, bere izaera eta jarrera animikoaren zioak zientifikoki aztertzearen. Giza gorputza beste ezein gorputz bat bezala aurkezten digu, lege fisiko berberen menpean, baina gorputza ezezik prozesu fisiologiko eta psikologikoak ere mugimendu fisikoaren legeen bidez adieraziko dizkigu.

Baina, gizakiaren grinak mekanikoki azaltzearekin ez da gizartearen egitura geometriko eta subiranotasunaren batasun apurte-zineraino bapatean iristen, aldezturik gizakiaren beste ezaugarri batzu ez baditugu aintzat hartzen, esate baterako, irudimena, lengoaia, arrazoia eta zientzia. Hobbesen teorian giza prozesu guztiak ongi azaldu eta loturik daude, eta katea kausal horren muturrik gorenean, Estatuaren beharra ipintzen da gizakiaren ongizate eta bakea zain ditzan.

"Giza-izandunak konplikazioz betetako makinak bezala ikusten zituen, zentzuek ekartzen dutenen bitartez jokatzeko duten tresnak bezala.



Filosofari honentzat gizona grinek zuzentzen dute. Grina hauek, pasio hauek, barne eragile batzuek dira. Grina hauek badute morroi leial bat: adimena. Hontan bereizten da gizona gainontzeko animaliangandik. Adimen hontatik sortzen dira hizkuntza, arrazoiketa eta zientzia".<sup>15</sup>

Bere *Elements of Law, moral and politic* horretan, eta zehazkiago, bere *Gizanatura* liburuan dagoeneko gizakiaren grinak aurkezten dizkigu hasiera batean, gero gorputz politiko baten beharra frogatzeko, giza ekintzak grinaren eraginaz ematen direlako. Beraz, gizakiak beste gizaki guztiekin borrokan sar ez dadin bere eskubide naturala beste bati edo talde bati ematen dio, dena berea egiteko eskubidea ere ordezkatzuz.

Giza naturaren ezaugarria bekaizkeria dugu, beraz, eta botere gero eta handiagoa eskuratzeko nahia, baina adimena du eta badaki beste edozeinek kalte egin diezaiokeela (honetan datza, hain zuzen ere, gizakien arteko berdintasuna, Hobbesen aburuz: edozein pertsonak beste edonor akatzeko adina baliabide baditu; eta ironikoena da hurrengo iraultza eta gerra burges eta liberaletan "berdintasun" horren izenean zenbat pertsona akatuak izan ziren, nolabait berdintasun horren definizioan Hobbesi arrazoia emanez), eta adimen horrek agintzen diona egin behar du, bakea bila dezala, alegia. Eta horretarako, arestian esana dugunez, ordezkatzeko edo itunen bidez ziurtatuko du gizarte baketsu hori.

Thomas Hobbesek politikaren bidez gizakia biluzik eta irteerarik gabe uzten du. Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen legeriaren beharra, legeen baliogarritasuna eztabaida daiteke arazo zehatzen aurrean, baina, misantroporik sutsuena ere, justiziaren ezpatapean eror daiteke, bestela gogora dezagun Kafkaren lana, berehala izango dugu gure begien aurrean Estatuaren irudi beldurgarri hori, Leviathan hori. Hala ere, Hobbesen garaian Agintearen inguruko eztabaida sakonean sarturik zeuden, gizakiak justizi eredu razional bat behar zuen, Erdi Aroko iusnaturalismoak ez bait zion konponbiderik ematen gizakiaren egoera soziopolitiko honi.

"La superioridad del iusnaturalismo moderno sobre el medieval se encuentra en el hecho de que el primero utiliza un nuevo concepto de la razón, más dúctil y adecuado a la nueva concepción del lugar del hombre en el cosmos y, en consecuencia, también una nueva idea de lo que es la naturaleza, que ya no es el orden universal dispuesto por Dios, sino única y sencillamente el conjunto de condiciones de hecho (ambientales, sociales, históricas) que el individuo ha de tener en cuenta para establecer las modalidades de su coexistencia con los demás".<sup>16</sup>

Gizakiaren ikuspegi antropologiko berri honek, zalantzarik gabe giza antolamendu berri bat dakar berarekin, eta Hobbesek honen sistematizazioari ekingo zion, hain zuzen ere. Azter dezagun bada, zehatz-mehatz, haren sistema filosofiko politikoaren ardatzak.

---

*De corpore, de homine, de cive*

---

Thomas Hobbesek politika zientifikoa eraiki nahi zuen, eta bere filosofiari osotasun metodologiko bat emanaz errealitate politikoa bere funtsean aztertu zuen. Honela, bere garaian fisikan eta medikuntzan emandako aurrerapenak aintzat harturik, gizakia beste edozein gorputz bat bezala aztertu zuen. Azterketa horretatik giza naturaren grinek eragiten zituzten mugimenduak ondorioztatu eta azkenik gizartean ematen ziren arazoei konponbidea eman nahi zien. Beste hitzekin esanda, giza gorputzak mekanikoki giza naturan eragiten zituen grinen ondorioz hiritarrek gizartean aurkezten zuten jarrera aztertu, eta ondorioz bere Estatu subiranoaren beharra deduzitu, bestela gizakia etengabeko borrokan aurkituko zelakoan.

Baina, ikus dezagun haren arrazonamenduaren ildoak urratsik urrats. Hasteko haren "egoera naturala"ren hipotesia aztertu beharra dago. Egoera natural hori, gizakiaren azterketan oinarritzen da, haren grinetan, haren borrokarako senan, alegia.

Lehendabizi, giza natura eta berari eragiten dizkioten printzipio fisikoen azterketa egiten du. Hauetan oinarriturik, katea kausal osoa ondorioztatuko du, bere filosofiari hiru atalez osaturiko korpua emateko asmoz. Azterketa horrek giza natura nolakoa den azaltzen digu, nolabait, egoera naturalaren hipotesia sendotzeko. Egoera natural horrek,

bere aldetik, giza naturak zer nolako ondorioak izango lituzkeen ilustratzen digu: elkarren aurkako borroka. Baina, lehen esan bezala, giza naturaren beste ezaugarria aintzat hartu beharra dago, adimena, hain zuzen ere. Giza arrazonamenduak konponbidea eman behar dio egoera honi, eta horretarako Hobbesek bere Leviathan-en XIV. eta XV. kapituluetan edo bere De Cive-n (E.W. II: II, 2, 16. or.) azaldutako hemeretzi lege naturalak ematen dizkigu.

Lege naturalik oinarritzkoena gizakiak bakea bilatu behar izatea da, baina egoera naturalean hori posible ez denez, gizaki orok bere burua babesteko eskubidea du. Bigarrena, bake hori nola lortzen den: bakoitzak dena bereganatzeko duen eskubidea baztertu beharko du gizakiak, norberak bere buruari utziko liokeen libertatea gainontzekoei utziz. Hauxe izango zen bigarren lege naturala, baina lehenago ikusi dugunez egoera naturalean ez dago elkarrenganako konfidantza hori. Beraz, puntu honetan sartzen digu Hobbesek bere kontratuaren teoria-bakoitzak duen bere burua babesteko eta dena bereganatzeko eskubidea hirugarren bati transferitu behar dio, Estatuari, alegia. Honela Estatuaren legitimazioa gauzatzen da:

"Se puede decir que Hobbes, a diferencia del jurista moderno, se preocupó por los presupuestos de su investigación, hasta el punto de crear un sistema racional de leyes naturales que sirviesen como base válida para el ordenamiento positivo".<sup>17</sup>

Hala ere, giza naturaren azterketa ezkorrak ez du erabateko segurantzarik ematen. Gizakiak beti lege natural horiek bete beharrean bere senari jaramon handiago egin, eta besteek gauza bera egingo dutelako susmoak bultzaturik legeak hautsiko ditu, armarik gabe akordioak ustelak dira eta. Beraz, eta hemen arrazoi-namenduaren azken muturra genuke, gizakiaren gaintetik, legeak bete eraziko dizkion aginte beldurgarri bat ezarri beharra dago: Estatu edo Leviathan hori.

Ikusten dugunez, Hobbesek aurkezten digun giza natura nahikoa ezkorra da. Berarentzat gizakia ez da animalia politikoa, bere izaera propioz ez du gizartean bizitzeko joerarik, Aristotelek zioen bezala. Gainera, Aristotelengandik datorkigun axioma hori, giza naturaren azalezko azterketa batetik atera da. Beraz, Hobbesek dioenez, "ondorioztatu behar da gizakia ez dela jaiotzen gizartean bizitzeko joerarekin, joera hori hezkuntzaz eskuratzen duela baizik".<sup>18</sup>

Baina, zer ikasten du gizakiak?, beste gizakiekin konpontzen eta elkar bizitzen, ala derrigorrez Aginte horren esana egiten?

"Hobbes percibe con toda claridad, igual que muchos filósofos políticos de la modernidad incipiente, que el problema del poder en la sociedad es también un problema de la obediencia, que no basta con fundamentar racionalmente la razón de ser del poder y de la soberanía mientras no se tipifique y, por así decirlo, se fundamente el deber de la obediencia".<sup>19</sup>

Oraintsu arte, Hobbesen teoria politikoa ia beti absolutismoari itsatsia azaldu zaigu. Dena den, ene ustez haren teoria politikoa askoz zabal eta mamitsuagoa da, ezin dugu haren obra osoa kalifikatibo horrenpean ezarri. Izan ere, haren obra osoa irakurriz gero, berarentzat eredu politikorik onena monarkia zela, eta monarkaren subiranotasuna ezin zela zatitu edo ahuldu aurkitzen dugu, baina, badirudi jende guztiak ahaztu egiten duela bere Leviathan liburuaren bigarren zatia XXX. kapitulua edota De Cive, non zehazten bait da Ordezkaritza Subiranoaren betebeharra; beraz, bere testuinguruan kokatu beharra dago kritika hori, hots, berak ez du esaten monarkak despotikoa izan behar duenik, nolabait haren ustez monarkaren gutzizko subiranotasuna ezin da deuseztatu, baina, baieztapen hori haren teoriaren barne ulertu beharra dago, bere metodologia deduktibo razionalistak horretara behartzen bait du: gutzizko subiranotasun hori hausten bada bere lehendabiziko hipotesia aintzat harturik, ostera ere egoera naturalean aurkituko ginatke, eta elkarren aurkako borrokan aurkituko ginatke berriz, izan ere, haren ustez, subiranotasun hori zatiezina da bake-egoerak iraun dezan nahi izanez gero, behintzat.

Nere ustez, gizarte baketsu baten oinarriak ezarri nahi zituen, eta absolutistatzen hartua izan arren, liberal hutsa zela esango nuke, berak deskribatzen digun gizonak bere ongizate eta aurrerabideak ziurtatu baizik ez duelako egiten:

"De los principios lógicos del pacto se deriva cualquier forma de gobierno, y el proceso histórico del pensamiento político posterior demuestra que en la teoría hobbesiana del pacto estaba incoada la moderna teoría democrática".<sup>20</sup>

Puntu honetara iritsi garelarik, komeni da Estatuaren eta beronen agintearen azterketa egitea. Izan ere, gizakia eta Estatu adimenaren eta lege naturalen aginduz uztarturik dauzkagu, eta Hobbesek berak ere agintearen azterketari ekingo dio, bere sistema politiko geometriko hori osatzeko orduan.

---

### **Jabetza eta Estatu**

---

Nire tesina burutzeko orduan Thomas Hobbesen teoria hain oparoa izanik, hartu nuen ikergunea "Jabetza Hobbesengan" izan zen. Izan ere, haren teoria politikoan garrantzi handia zuen.

Jabetza, Hobbesek dioskunez, Estatu subirano batek bakarrik legeztu dezake, gizakiak bere egoera naturalean dena lortzeko eskubidea duenez gero, ezingo genioke gure jabetzari eutsi, beti besteen aurka borrokatzen ihardun beharko genukeelako eta edozein momentutan gal bait genezake. Ondorioz, Estatu batek bakea ziurtatuz, norberaren jabetza ere ziurtatuko luke, baina, azken finean jabetza oro Estatu subiranoaren arbitrioetan legoke, berea izango litzateke, alegia. Hobbesen ustez justizia eta jabetza Estatu eratzten denean hasten dira.<sup>21</sup>

Hobbesentzat bidezkoa eta ez bidezkoa hitzak gizakiei dagozkie gizartean daudenean bakarrik, eta ez bakardadean; bakardadean jabetzarik ere ez dago<sup>22</sup>. Nolabait esateko, jabetza Estatuaren materia da, hortik elikatzen da, eta subdituek bertatik jan badezakete, bakoitzak dagokion jabetza izanik, Estatuak bere justizia eta legeen bidez banatzen dituelako da.

"La distribución de los materiales que posibilitan esta nutrición es lo que constituye lo mío, lo tuyo y lo suyo, o, para decirlo con una palabra, la propiedad; y pertenece, en todo tipo de Estado, al soberano. (...) Y esto lo supieron bien los antiguos, los cuales dieron el nombre de "Nomos", es decir, distribución, a la que nosotros llamamos ley; y definieron la justicia diciendo que ésta consistía en distribuir a cada hombre lo suyo".<sup>23</sup>

Hobbesen teoria politikoan, jabetzak garrantzi handia du eta ez badu inoiz ahazten Estatu subiranoaren eskutan dagoela, onartzen du subdituei, banaketa horren ondorioz, beren jabetza dagokiela. Bestalde, ez dugu ahaztu behar Hobbesen subirano edo Leviathan hori, gorputz artifiziala dela, denon gainetik eraikitako Estatu subiranoa, alegia. Ondorioz, jabetzak, bakar-bakarrik gorputz horretan hartzen du zentzua, eta hein berean jabetzak zentzua ematen dio gorputz artifizial horri, bere banaketaren bidez justizia lortzen delako.

Estatuaren beharra, askoz onartuagoa suertatzen da orain hiritarrentzat, pakea eta jabetza ziurtatzen dizkiolako. Gizakiak bere

egoera naturalean zeukan dena eskuratzeko eskubidea Estatu subiranoari ematen dio, ordezkatzeko horren bidez bakea eta aurreratzeko posibilitateak ziurtatuko dituelakoan.

Estatu horrek, norberaren jabetza babestuko du bere legeen indarrez, azken finean bereak diren jabetza horiek banatzerakoan, bakea eta segurantza lortu nahi dituelako.

Hobbesez, jabetza merkantilismoaren zentzu liberalean finkatzen du, eta bere garai hartako merkataritza hazkorrak jabetzen pilaketa irrazionala lor ez zezan, Estatu subiranoaren esku utzi zuen. Estatuak jabetza eta merkaturia kontrolatu behar ditu, bestela gizabanakoak bere izaera bekaiztiari jarraituz denaren jabe izatea nahiko luke, berriro etengabeko borrokan eroriz.

Sarreran esan dudanez, ez da nere asmoa Estatuaren genealogia bat egitea, ezta jabetzarena ere; dena dela, bertatik atera daitezkeen hainbat argibide oso baliogarriak izango zaizkigulakoan nago, beraz ez ditzagun alde batera utz.

Lurraren gaineko eskubidea, beharbada, Neolitikoan koka genezake, gizakiak kokapen geografiko zehatzak eta nekazaritza eta abelazkuntzaren aldaketa ekonomikoen ondorioz giza antolaketa berri bat suposatu zuelako. Jabetzak, garai hartan kutsu kolektiboa bazuen, giza talde batek lurralde bat berea egin zuelako zen, eta garai hartan guztiek parte hartzen zuten kolektibo haren ekintzetan, giza taldearen osotasunak mugatzen zuen

gizabanakoaren zeregina. Baina, noiz sortu zen gizabanakoaren jabetza?

"Pero cuando las tribus pastoriles se separaron del resto de los salvajes, encontramos enteramente formadas las condiciones necesarias para el cambio entre miembros de tribus diferentes y para el desarrollo y consolidación del cambio como una institución regular. Al principio, el cambio se hizo de tribu a tribu, por mediación de los jefes de las gens; pero cuando los rebaños empezaron a ser propiedad particular el cambio entre individuos fué predominando más y más, y acabó por ser la forma única."<sup>24</sup>

Engelsek ez digu zehazki esaten noiz pasa zen tribuaren jabetzatik gizabanakoaren jabetza izatera, baina bai, nola gerta zitekeen. Nekazaritzarekin emakumeak lehengo postu bat zeukan etxean, gizona ehiztaria zelako eta lan-banaketa hori kolektibitatearen barne eginda zegoenez, sexu bakoitzak bere eremuaren jabea zen: emakumea etxearena eta gizona oihanarena. Bestalde, bakoitzak egiten dituen produktu eta lanabesen jabea bera da: ehiza eta arrantzarako armak eta beste tresnak gizonarenak, eta etxeak emakumearenak, eta denon artean egin eta erabiltzen direnak komunitatearenak dira. Baina, abelazkuntzarekin eta honek sortzen zuen produkzio aborokinarekin gizonak produkzio handiago baten jabe egin zen eta emakumearen produkzioa gizarte horretan garrantzi gutxikoa zenez, gizonaren menpe geratu zen.

Gizonak, bere lanindarrez ekoizpen handiagoa sortzen zuen, eta emakumea, etxean zuen primazia ere galduz joan zen. Familiatik kanpo sorturiko lan-banaketa berriak jabetzaren banaketa berria ekarri zuen berarekin eta honela gizonaren nagusigoa ezarri zen, ama-eskubideak aita-eskubideari paso emanaz eta bestalde ezkontza sindiasmikotik monogamiara pasatuz. Antzinako "gens"-en ordena ere kolokan jarri zen, familia partikularrak indar handia hartuz.

Bestalde, produkzioaren arlo guztien aurrerapenarekin giza lan-indarrak behar baino gehiago sortzen zuen, eta gens bakoitzeko partaideari zegokion lana ere handitu zen. Lan-indar gehiago behar zen eta gerraren bidez lortu zen, esklabutzarekin, alegia. Honela, bi klase sortu ziren, jaun eta jabe zirenak eta esklabu edo morroiak, baina geroago aberats eta pobreen arteko desberdintasuna ere gertatu zen, familiaburu batzuek besteek baino ondasun gehiago lortu zutelako. Antzinako giza taldeen sistema kolektiboak apurtuz joan ziren, eta soroak familien artean banatu ziren. Lurren gaineko jabetza pribatua apurka-apurka sortuz joan zen eta honekin batera ezkontza sindiasmikotik monogamiara pasa zen; banakako familia gizartearen unitate ekonomiko bihurtzen hasi zen, eta beste giza taldeen erasoz babesteko familia horiek herrietan bildu ziren. Aintzinako tribu edo leinuen sistema gentilizioak, herrian edo gens horien baitan zeuzkan sustraiekin apurtu zuen, buruzagi militarrek beharrezko funtzionario bihurtu zirelako eta horien

aita-eskubideak heredagarri egitean familia horien nagusigoa ezarri zelako; honela finkatu ziren noblezia eta monarkiaren oinarriak.

Engelsen teoriaren laburpen txikiegi honen bidez, ikus dezakegu jabetzaren sorrera ez dela Estatu subiranoan ematen, Hobbesek baieztatzen zuen bezala, baizik eta jabetza bat babestearren sortzen dela Estatu subirano hori.

Jabetza sortzen den momentutik, gizartean ekonomi sistemaren aldaketak ematen dira eta hasiera batean barne-egituraketa gertatuko da, kolektibitatearen osotasunaren zentzua ere aldatu egiten delako. Azken finean "giza komunitateak gauzen munduarekin duen lokarria jabetza bera da".<sup>25</sup>

Beraz, Hobbesen sistema politikoan jabetzak garrantzi handia du bere kontraktualismoaren funtsean inkoaturik bait dago. Jabetza bere gizarte merkatari eta burgesaren oinarria da; jabetza boterea da, domeinua. Estatu modernoaren ezaugarria azken finean horixe bera da, jabetzaren kontrola. Jabetzaren kontrol hori, sistema politikoaren baitan gauzatzen da legeriaren bidez, honela gizonak jabetza eta boterea lortzeko duen bidea zeharo arauturik azaltzen zaigu:

"...es preciso que los hombres distribuyan aquello de lo que pueden prescindir, y transfieran su derecho de propiedad sobre ello mediante intercambios y contratos mutuos, Y, por tanto, corresponde al Estado, es decir, al soberano, determinar el modo

en que habrán de hacerse todos los tipos de contrato entre súbditos, contratos de compra, venta, trueque, préstamo, arrendamiento..."<sup>26</sup>

Estatuak ziurtatzen duena hau da: jabetzaren tratamendua eta diruaren bidez ekonomiaren mugimendu fisikoen susperraldia. Honela, Estatuaren funtsa zen jabetza diru higikor bihurtzean Estatu Modernoaren sistema ekonomikoaren ardatzaren aurrean aurkitzen gara. Esan beharra dago Hobbesek ondasun higiezinak eta higikorrak bereiztu zituela.

Beraz, Hobbesen sistema politikoan liberalismoa defenditzen da, Estatuaren materia ondasuna da, bere lana bera ere jabetza eta merkantzia delarik:

"La sociedad posesiva de mercado es el único de los tres modelos que satisface las exigencias de Hobbes. Y es difícil de imaginar otro modelo que lo haga. Solamente en una sociedad en la que la capacidad para trabajar de cada hombre es propiedad suya, y una propiedad alienable, y es además una mercancía, pueden estar todos los individuos en esta continua relación de poder competitiva".<sup>27</sup>

Hobbesek hasieratik ematen digun gizakien arteko berdintasun-kontzeptura itzuli beharra daukagu, bertan ikus bait dezakegu Estatu Modernoaren oinarrian datzan etengabeko norgehiagoka. Bere egoera naturalean edonork dena eskuratzeko eskubideaz baliatuz besteen gauzez jabetu daiteke eta beste hiritarren bizitza ere arriskuan jar lezake. Izan ere, denok daukagu gogoan Estatu

Batuak nola sortu ziren, bertako indigenen eskubideak ebatsiz eta beraiei lurra eta bizitza kenduz. Dena den, Amerikaren konkista, gure arazoaren erdigunean kokatzen da, garai hartan Mendebaldeko kulturak basatitzat hartzen zituen bertan kokaturiko herriak, agian ez zutelako berdintasunaren ideia hori, zibilizatuak ez zirelako, beharbada.

Berdintasun hori sistema ekonomiko liberalaren funtsean koka dezakegu, eta norgehiagoka horrekin lortzen dena gero eta desberdintasun handiagoak sortzea da. Giza naturaren azterketa eginez, norberaren burua behatuz gero denok daukagun boterea lortzeko grina neurrigabea antzeman dezakegu. Dena dela, Macphersonek dioten bezala, horrek ez du esan nahi beti horrela izan behar duenik. Gizakia Estatu subiranoaren legepean jarri nahi badugu, jar dezagun, Hobbesek nahi duen bezala, baina ezin dugu esan lege eta Estatu subirano horren beharra, beti gizakiaren jokabide oker eta borrokazaletik logikoki induzi daitekeenik:

"...Hobbes pasó de sus postulados fisiológicos originales a la conclusión de que todos los hombres tratan necesariamente de conseguir más poder sobre otros, al introducir supuestos que sólo son válidos para sociedades posesivas de mercado. Y sólomente después de haber fundamentado su conclusión de que todos los hombres que viven en sociedad tratan necesariamente de conseguir más poder sobre otros introdujo su hipotético estado de naturaleza, del que, a su vez, infirió la necesidad del estado soberano".<sup>28</sup>



Dena den, Hobbesentzat jabetza eta justizia ez dira posibleak Estatua eratzen den arte. Honela gizakien gainetik botere subiranoaren bortxazko agintea ezarri, hiritarrak bere bizitza eta bere ondasunak ziurtatuko lituzke. Nolabait, jabetza ororen gain jartzen den botere subirano horrek segurantza ematen dio, eta ondasunak liberalitatearekin batera boterea. Beraz, elkarri eragiten diote Hobbesek sistematizatu nahi duen sistema liberalean kokatzen baditugu: Botere liberal horrek aberastasuna lekarke eta aberastasun horrek, modu liberal batez, boterea.

Estadu Moderno honek gizarte zibilaren segurantza eta hiritarren ondasunak babesteko, bortxazko agintea ziurtatu behar du. Honela gizakia lege razionalak betetzera eta gizarte zibila errespetatzera behartzen du. Botereak iusnaturalismoaren bidez bortxaren erabilpena legezkatzen du, Habermas-ek dioenez<sup>29</sup>, eta Hobbesek botere subirano absolutu hori defendatzen du, Leviathan horrek bere bortxa-agintea erakutsiz, beldurra sortuko lukeelako hiritarren, itunak eta legeak bete eraziz.

Beraz, Hobbesen teoria politikoa hipotesi kontraktualista baten gain eraikita dago, eta itun hori bete erazteko aginte errespetagarri eta beldurgarria ezarri beharko litzateke, haren Leviathan horrek ondo adierazten duen bezala. Ene ustez itun horrek bilatzen duena edo gizabereak bilatzen duena bere burua eta bere jabetza babestea da, gizarte baketsua sor dadin. Hala ere, giza natura aztertzen badugu bere baitan sen

matxino hori aurkituko dugu, Hobbesek hainbeste gaitzetsi zuena; gizakiak beharbada ez du gizartean bizitzeko gaitasunik eta Estatuak hezkuntza egoki baten bidez horretarako prestatu beharko du, Hobbesek dioen bezala. Hala ere, gizakia bere burua proiektatzen duen izaki bakarra denez..., norantza zuzenduko ote ditu bere urratsak? Posiblea ote da bidezko aginte iraunkor eta era berean beldurgarria ezartzea?

Dena den, eta puntu honekin bukatzeko, Hobbesen teoria oso zabala denez, haren azterketa puntuz puntu egin beharko litzateke. Nere tesinan aztertu nituen garrantzi handiko puntuak aipatzeko leudeke lantxo honetan, esaterako: askatasuna, justizia, morala eta batipat boterea. Agintea zertan datzan eta nola sistematizatu behar den aztertzeko aurreko puntuak derrigorrez sartu behar dira, baina, luzeegia izango litzateke, eta astia izango da aurrerantzean filosofo oparo bezain interesgarri honi buruzko lanak plazaratzeko. Izan ere, nere tesia ildo honetatik doanez, hona hemen hurrengo lana izan daitekeenaren sinopsia.

---

### **Ene Tesiaren nondik-norakoak**

---

Gaur egun, Thomas Hobbesi buruzko tesia gauzatzea egia esan ez da lan makala, ez. Haren kutsu absolutista horrek historizismoan nolabait erdi ahazturik gelditzea ekarri du. Hala ere, eta berriro diot, nire ustez ez zen faxista, eta zorionez azken ikerketa filosofikoek bere ohorea eta duintasuna onartu egin diote.

Izan ere, boterearen ikerketa politikan eta soziologian interesik handiena duen gaia dugu, eta nire asmoak ere horretara daude bideratuak. Boterearen azterketa sakonak Hobbesen sistematizazioari behar adina aipamen eskaini beharko liokeelakoan nago.

Honela, Hobbesek egindako giza naturaren azterketari egun dauzkagun boterearen inguruko teoriak aplikatuz, haren teoria politikoa berraztertu eta nolabait hermenetikaren laguntzaz haren politikaren ikuspegi liberalago hori argitu nahi dut.

Horretarako Michel Foucault-en lana erabiliko dut. Honela gizakiak eta gizartearen artean kokatzen den botere-grina horri helduko diot, eta nire ikerketa nik espero dudan bezain emankorra suertatzen bada, espero dut urte batzuren buruan sistema hobbestiar berri horren argibideak plazaratzea. Nire ustez, Hobbesen asmoa burutu gabe dago, hau da, politika zientzien eremura eramatea, eta ez dut esango nire asmoa hori denik, ezta gutxiago ere, nire ustez politika inoiz ez bait da zientzia izango, baina egun bizi dugun teoria politikoaren gainbeherakadatik irtetzeko izan ditugun teoria politiko nagusien berrazterketa egiteari ezinbestekoa deritzot.

---

## Oharrak

---

- 1 Garai historiko honetan emandako iraultza eta matxinadei buruz ikus: PEREZ ZAGORIN; *Revueltas y Revoluciones en la Edad Moderna, II. Guerras Revolucionarias*, Cátedra, Madril, 1986; eta Ingalaterrako egoera politiko soziala eta ideologikoari buruz ikus: Hill, Christopher; *Los Orígenes Intelectuales de la Revolución Inglesa*, Crítica, Bartzelona, 1980.
- 2 Gipuzkoako bide-sareari buruzko ikerketa interesgarri bat burutu berria dugu: ELENA BARRENA OSORO-ren *Historia de las Vías de Comunicación en Gipuzkoa*, Gipuzkoako Diputazioak, Donostia, 1991. Eta bertan egiazta daitekeenez, gaurdaino iritsi zaizkigun dokumentuen artean hiribilduen fundazioetakoekin batera, segurtasun eza eta bide-sarien bidegabekeriaren inguruko auziak azaltzen zaizkigu. Ene ustez, sistema feudal zatikatu baten krisialdiaren froga zuzenak dira, hain zuzen ere. Bere garaian suposa zezakeenaren ideia izan dezagun, gaur egun ezein Estatuk komunikabideetan zenbat diru uzten duen ikusi besterik ez dago.
- 3 Fiskoak Estatu Modernoaren eraikuntzan izan zuen garrantziaz azalpen ederra aurki dezakezue GASTON LEVAL-en *El Estado en la Historia*, laugarren atala, Zero, Madril, 1978.
- 4 THOMAS HOBBS, *Leviatán*, CARLOS MELLIZOren itzulpena, Alianza Editorial, 206. or., Madril, 1989.

- 5 Erreformak izan zuen garrantziaz ez naiz luzatuko, benetan argigarria duzelako CHRISTOPHER HILL-en liburua. Ikus lehen oharra.
- 6 Ikus PEREZ ZAGORIN-en liburuaren 33. or.
- 7 Obra berbera, 165. or.
- 8 DUMONT, LOUIS; *Essais sur l'individualisme, Une perspective anthropologique sur l'idéologie moderne*, 88. or., Esprit/Seuil, Paris, 1983.
- 9 GOYARD-FABRE, SIMONNE; Les efets juridiques de la politique mecaniste de Hobbes, *Revue philosophique*, 2. zenb., 189. or., 1981.
- 10 DILTHEY, WILHELM; *Hombre y mundo en los siglos XVI y XVII*, 434. or.
- 11 LAZKANO MENDIZABAL (AZURMENDI, JOXE); *Gizona abere hutsa da*, Jakin, Oinati, 1975.
- 12 DUMONT, LOUIS; aipatu obran, 91. or.
- 13 PIERRES CLASTRES-en ustez (*La voluntad de ser siervo*, El Viejo Topo, 32. zenb., 58. or.) egoera naturalean bizi diren leinu askok morrontzakeria bazterten dute, nahiz eta buruzagi bat onartu. Azken finean Estatua ez daukaten etnia horiek ez dute Estatua onartzen boterea eta buruzagiaren rola bereizten dutelako. Baina, agintea egoera naturalean berezko gauza da gizakiarengan, aginte nahi hori, hain zuzen ere, GASTON LEVAL-en *El Estado en la Historia* liburuaren lehen atalean aztertzen da, eta ondorio gisa Estatuaren eraketan garrantzia handia duela esaten digu, baina ez dela ahaztu behar gizakiarengan jarrera horiek badirela aldez aurretik.
- 14 HOBBS; *Leviatán*, 13. kapituluari, 109 or., Alianza Ed., Madril, 1989.
- 15 ARREGI, RIKARDO; *Politikaren atarian*, 128. or., Lur, Donostia, 1969.
- 16 BOBBIO, NOMBERTO; *Thomas Hobbes*, 209. or., Paradigma, Bartzelona, 1991.
- 17 Ibid., 199. or.
- 18 HOBBS; *De Cive*, (E. LYNCH-en itzulpena : Hobbes, "La Libertad" kapituluari, 197. or. Peninsula, Bartzelona, 1987.)
- 19 LYNCH, E. Hobbes, 31. or.

- 20 TIERNO GALVAN, ENRIQUE; Thomas Hobbes, *Antología de Textos políticos*, (Sarrera, XVII); Tecnos, Madril, 1976.
- 21 HOBBS; *Leviatán*, 15. Kap, 121. or., Alianza, Madril, 1989.
- 22 Aipatu obran, 13. Kap., 109. or.
- 23 Aipatu obran, 24. Kap., 202 or.
- 24 ENGELS, F; *El origen de la familia, de la propiedad privada y del Estado*, IX, 160 or., Ayuso, Madril, 1975.
- 25 RUBEL, MAXIMILIEN; *Páginas escogidas de Marx para una ética socialista*, 220 or., Amorrortu Editores.
- 26 HOBBS; *Leviatán*, 24. kap, 205 or.
- 27 MACPHERSON, C.B.; *La Teoría política del individualismo posesivo*, 60. or., Fontanella, Bartzelona, 1979.
- 28 Aipatu obran, 67. or.
- 29 "El poder legitimado iusnaturalistamente, organiza la amenaza y la utilización de la violencia para la protección de la sociedad civil, precisamente con el fin se suprimen el miedo frente a los enemigos, frente al hombre y frente a la servidumbre." HABERMAS, J; *Teoria y Praxis*, 68. or, Tecnos, Madril, 1987.

---

## Bibliografía

---

THOMAS HOBBS-en obra osoa:

Sir WILLIAM MLESWORTH; *The English Works*, XI. liburukia, eta *Opera Latina*, V. liburukia, Londres, John Bohn, 1839-1845.

Erderazko itzulpenak:

NEGRO PAVON (itzulpena eta hitzaurrea); *Elementos de Derecho*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 1979.

CARLOS MELLIZO (itzulpena eta hitzaurrea); *Leviatán*, Alianza Editorial, Madril, 1989.

BARTOMEU FORTEZA PUJOL (itzulpena eta hitzaurrea); *Libertad y Necesidad y otros Escritos*, Ed. Península <<Nexos>>, Bartzelona, 1991.

Hobbesi buruzko bibliografia:

ANDERSON, P.; *El Estado Absolutista*, Siglo XXI, Madril, 1987.

ARREGI, R.; *Politikaren atarian*, Lur, Donostia, 1969.

BARNES, B.; *La naturaleza del Poder*, Pomares-corredor, Bartzelona, 1990.

BLOCH, E.; *Derecho y dignidad humana*, Aguilar, Madril, 1980.

BOBBIO, N.; *Sociedad y Estado en la F<sup>a</sup> Moderna*, F.C.E. Doncel, México, 1986; Thomas Hobbes, Paradigma, Bartzelona 1991.

BOWLE, J.; *Hobbes and his Critics. A Study in Seventeenth Century Constitutionalism*, Jonathan Cape, Londres, 1951.

CAMPBELL, T.; *Siete Teorías de la Sociedad*, Ed. Cátedra, Madril, 1985.

DILTHEY, W.; *Hombre y mundo en los siglos XVI-XVII*, F.C.E., México, (1914), 1978 .

DUMONT, L.; *Essais sur l'individualisme, Une perspective anthropologique sur l'idéologie moderne*, Esprit/Seuil, Paris, 1983.

GALVAN, T.; *Antología de Textos Políticos*, Tecnos, Madril, 1976.

GARMENDIA, G.; *Thomas Hobbes y los orígenes del estado burgués*, Siglo XXI, Buenos Aires, 1973.

GONZALEZ GALLEGO, A.; *Hobbes o la racionalización del poder*, Ed. Universidad de Barcelona, Bartzelona, 1981.

GOYARD-FEBRE; *Les droit et la loi dans la philosophie de Thomas Hobbes*, Klincksieck, Paris, 1975.

HABBERMAS, J.; *Teoria y Praxis*, Tecnos, Madril, 1987.

LEVAL, G.; *El Estado en la Historia*, Zero, Madril, 1978.

LYNCH, E.; *Hobbes*, Península, Bartzelona, 1987.

- MACPHERSON, C.B.; *La Teoría Política del Individualismo Posesivo*, Fontanella, Bartzelona 1979.
- MINTZ, S.; *The Hunting of Leviathan*, Clarendon Press, Oxford, 1969. (1962)
- OAKESHOTT, M.; <<Sarrera>> *Leviathan-i*, Oxford, 1946.
- POLIN, R.; *Politique et Philosophie chez Hobbes*, Vrin, Paris, 1977.
- SKINER, Q.; *Los fundamentos del pensamiento político moderno*, II. La Reforma, F.C.E., México, 1986.
- SCHMITT, C.; *Der Leviathan in der staatslehre des Thomas Hobbes*, Hanseatische Verlagsanstalt, Hamburg, 1938.
- STRAUSS, L.; *The Political Philosophy of Hobbes. Its basis and its genesis*, Clarendon Press, Oxford, 1963.
- TONNIES, F.; *Hobbes*, Alianza Editorial, Madril, 1988.
- TORT, P.; *Physique de l'état. Examen du Corps Politique de Hobbes*, Vrin, Paris, 1978.
- VALLESPIN, F.; *Historia de la teoría Política 2*, V. atala, Alianza Editorial, Madril, 1990.
- WARRENDER, H.; *The Political Philosophy of Hobbes: His Theory of Obligation*, Clarendon Press, Oxford, 1957.
- WATKINS, J.W.N.; *Qué ha dicho verdaderamente Hobbes*, Doncel, Madril, 1972.